

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Martxoak 17 15. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Iturripeko polikiroldegia dugu aurten egitea pentsatu den proiektu bat

Udaleko aurrekontuak inoiz baino lehen onartuak

Dagoeneko onartu dituzte Udalean aurtengo urteari dagozkien aurrekontuak. Isitilutsua gertatu zen berauek onartzeko burutu zen plenoa eta ez ziren unanimitatez onartu. Aurrekontu hauek lau urtetarako Udalean egin zen planaren barruan kokatu behar omen dira, eta herrian dagoen infraestrutur eskasia bati erantzuten omen diote.

Aurtengo aurrekontuetan nabarmen inbertsioetarako gorde den diru partida dugu, proiektu garrantzitsuak egitea pentsatu delarik, pilotaleku berria eta Iturripeko polikiroldegia adibidez.

Iazko aurrekontuekin gonbaratuz gero %14an igo dira eta Aukea eta Iturbide egoitzaren aurrekontuak kenduz gero 1.649.958.358 pta.koa da aurtengo aurrekontua. (14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Lantegi-Eskola

Cerrajerako eraikuntza zahar batean ari dira jo eta ke 70 gazte hainbat ofizio ikasten. (11.or.)

Hiriguneko "Plan de Rehabilitación Integrada"

Delakoa zuzenduko dituen erizpi-deak finkatuta daude dagoeneko. Planaren helburuenetarikoa bat: herri harresituaren ingurubidea osatzea. (12. or.)

ELKARRIZKETA

Mikel Otxoa

Ezbeharrez popular bilakatuko gaztea dugu. Bere bizitzan Errealia eta Osasunaren arteko lehiek esanahi berezia dute...igandekoak lehioak itxaropenari zabal daitezzen balioko duelakoan gaude. (17.or.)

PODIUMA

Patxi Gorosabel

Arrasateko Rugbyko historikoa, lagun eta "ensayo" ugari bildu ditu azken urte hauetan. (19.or.)

LASTER ARTE MAITEOK!

Aste honetan oporrak hartzen ditugu, beraz, datorren ostiralean ez duzue aldizkariarik izango. Txintxo ibili

MUGARRI 

Arabako Etorbidea, z/g

Tfnoak: 79 07 44 - 79 07 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
---	--------

17 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "El señor de los llanos"
Novedades (Bergara): "La revolución de los novatos".
5; 7,30; 10,15.
- **Antzerkia:** "El relevo" Gabriel Celayarena.
10,30etan Novedades aretoan.
- **Goardiako farmazia:**
Ruiz Torre, Ferrerías.

18 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Un pez llamado Wanda".
Novedades (Bergara): "Good morning, Babilonia". 5; 7,30; 10,15.
- **Pinpon eta Futbolin-Txapelketa:** 4,30etan AEDen.
Dohainik. Sariak: afaria eta oparia; afaria.
- **Antzerkia:** "Edurnezuri", Donostiako Antzerti Musical San Ignaciorena. 6etan Amayan.
- **Kantaldia:** Coral Gorosarri.
Santa Teresa Elizan (Eskoriatza), 8,30etan.
- **Erramun Sapatua:** Bergaran:
10etan: Ganadu-txapelketa-
ren hasiera
1,30etan: Ganadu-txapelketa-
ren sari banaketa, Peri inguruan.
5,30etan: Herri Kirolak, San
Martín Enparantzan. Mutriku eta
Lekeitio norgehiagoka.
10,30etan: Bertso-jaialdia:
AEK-k antolatuta: Lizaso Aita-
semeak, Gorrotxategi, Peñagari-

kano, Mañukorta, Lazkao txiki.
Txiste-Kontalari: Jose Ramon
Galarraga, Asier Agirrebeña.

19 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "Un pez llamado Wanda".
Novedades (Bergara): "Good morning, Babilonia".
5; 7,30; 10,15.
- **Goardiako farmazia:**
Corcuera, Elkano.

20 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Un pez llamado Wanda".
Novedades (Bergara): "Good morning, Babilonia".
- **Goardiako farmazia:**
Jose A. Irizar, Erguin.

21 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Un pez llamado Wanda".
- **Mahaingurua:** "Gazteria eta etxebizitza".
Monterronen, 7etan.
- **Goardiako farmazia:**
L. Amezua, Santamaina.

22 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:**
Aurora Ruiz, Magdalena.

23 OSTEGUNA

- **Perestroikako zinea:** "Ispilua",
Tarkovskirena.
8,30etan Amayan.

ERAKUSKETAK

- **Estibaliz Ormaetxea:** Pintura - erakusketa, Etxe - Aundi jatetxean (Oñati). Hilabete osoa.
- **Joseba Lacadena:** Pintura - erakusketa, Galeria 44ean.

IKASTAROA

- **Txalaparta:** larunbatero 9etatik 1etara. Ekainaren 24rarte. Izen emateko epea: Martxoak 31rarte, Udaleko Gazteriaren Departamentuan. Matrikula debalde.
- **Negu-teknikak:** Gavarnien. Apirilak 1 eta 2. Prezioa: 2000 pta. Izen ematea: Besaiden Martxoan 23rarte. Federatua izan behar da derrigor. Antolatzailea: Besaide.

LEHIAKETA

- **Oñatiko V. literatur lehiaketa:** Oñatin jaino, bizi edo lan egiten du-
tenentzat. Izena emateko azken eguna: Apirilak 20.

IRTEERA

- **Pirineosera (Benasque):** hilak 24, 25, 26 eta 27. Prezioa: 2.500 (3.000
bakide ez direnentzat). Antolatzailea: Murruxiko (Aretxabaleta).

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Hau atrako bat da, jaso eskuak!

Hamabi miloi pezeta irabazten omen zituen urtean Miguel Boyerrek Banco Exteriorean. Handik gailurrerainoko bidean ipini eta Cartera Central delakoan fitxatu zutenean, urteko ehun eta hogeit mila etxeratzea agindu zioten. Jauzia, beraz, olinpikoa.

Dena den, neri bost axola zenbat eta nola ordaintzen dieten ministrari ohiaren gisako espezimenei. Ez da hori gehien arduratzen nauena. Ezta gutxiagorik ere. Konponduta geundeko horri begira egon beharko bagenu...

Baina, badira mundu bitxi bezain faltsu horren inguruan gailentzen diren puntu batzu, gizaki arrunta besterik ez den artikulugile apal honi -aitortu behar dutbarregura sortzen diotenak.

Eraikuntza jausten ari zaie oinarria tinkatu nahi ez zuten haundizaleei. Abiapuntuan, irteerako parrilari, lehenak izan nahi zuten kuartero berriei tiroa gaizki atera zaie, itxura denez. Eta Espainiako ekonomian berezko argiz ihardun nahi izan duten sasibankariei

iluntasuna eta noraezko zentzazioa nagusitu zaizkie..

Brasildar telesail horietako baten protagonistak zitezkeen, azkeneko hiletan, espainiar ekonomiaren lemazainak izan nahi dutenak. Gaizki, oso gaizki hitzarmenduriko ezkontza baten aurrean gaude. Ezkonkideek ez zioten elkarri berba egiten. Beraz, dibortzioa iragarrita zegoen.

KIO, Albertoak, Conde... eta gainerako marrazoek mokaurik probetxugarriena non aurki zitekeen aztertzen zuten, inolako lotsarik gabe. Dena zitzaien zilegi, elkarrekiko deskalifikazioa barne. Nahaste kirastun horren eragilerik zuzenetakoa, bankaren jaun eta jabe izan nahi duen gobernu sozialista.

Okertu omen egin zaio Boyerri bere asmoa. Ez, noski, aberatsa izatekoa, superbankuaren lehendakari-tzara ailegatzekoa, baizik. "Zozolisto"-ek ez ei dute oraingoan asmatu. Baina, ikusiko duzue, ez dute hain errazki etsiko. Panderetaren erresuman dena baita posible, itsua begibakarren errege izatea bame.

Jose Mari Velez de Mendizabal



inprimategia eta autoedizio zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA




ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ


ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

**GIROA
AROTZAK**

Iturriotz 14, ARRASATE



gili gili



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**ASA
ASEGURUAK**

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Informazioa eta formazioa, edo betiko leloa

Ene uste apalean, ete orokorrean esanda, bi eratako idatziak ager daitzke prentsa idatzian. Alde batetik, testu informatiboak dei genitzakeenak: berriak, datuak, deialdiak...Hauetan, informazioa ahalik eta osatuena eta helburu batzuekin eman beharko litzateke. Ez da lehen testu-mota hau komentarioena, ezta eritziena ere, eta ez dute sinatu gabe agertzeko arazorik, nahiz eta informazioaren iturria aitatzeko komeni den.

Bestetik, badira beste testu batzuek, eritzi arlokoak edo. Hauetan informazioa komentatu, goraiatu, gutxietsi...dena da onartua, horixe bait da euren funtzioa. Baina, jaunak, irakurleak jakin behar du hori eritzi bat dela, eta besterik ez; hau da, testu hori eritzi moduan aurkeztu behar da eta sinaturik eman.

Guzti hau, "Ikastolak komenioa sinatu" berria irakurtzerakoan (ARRASATE PRESS, 13. zk.) etorri zait gogora. Emandako datu objektiboetan, osotasun falta (eta hori konpon dezazuen, honekin batera doan orri informatiboarekin nahikoa litzateke). Eta bestaldetik, datu horiekin nahaspilaturik, behintzat "eztabaidagarri" diren zenbait baieztapen ematen zaizkigu: "Ikastola gehienek eta ekonomikoki fuerteenek sinatu dute, eta esan daiteke sinatze hau gizarte kontzientziarengatik izan dela". (Azpimarraketa, jakina, neurea da: ekonomikoki fuerteenek sinatu dutena frogatu egin beharreko gauza da, eta ez nago ziur frogatu daitekeen*; eta azken baieztapenari dagokionez, hori "esan daiteke", kontrakoa esan daitekeen eran, arrazoi eta funts berberekin.)

Adeitasunez, ARRASATE PRESS-eko irakurle eta lagun bat.

*Diot, inortxok ere ez bait du oraindik sinatu; eta "ekonomikoki fuerteenek" prentsan iragarri bait dute ez dutela sinatzeko asmorik.

ARRASATE PRESS

Hasteko, eskerrik asko idatziagatik. Zehaztu behar dugu aipatutako artikulua horretan akats pare bat dagoela:

— "ekonomikoki fuerteenek sina-

tu dute" esaten denean, "ekonomikoki fuerteenek ondarea ez ematea eta sinatzea erabaki dute" esan beharko genukeen.

— eta, "esan daiteke sinatze hau gizarte kontzientziarengatik izan dela". ren ordean, "esan daiteke sinatze hau gizarte-kontsentsoarengatik, eta gizartearen-islada izan dela" jarri beharko zukeen. Jesus Garmendiaren hitzak dira, eta 1989ko Otsailaren 21ean Ikastolen Konfederakundeak eta Hezkuntza Sailak sinatutako komenioaz ari da.

Bertso sorta

Hona hemen AEDko taldeko partaide bat bidalitako bertso sorta ederra. Ikusten denez, talde hau ematen ari da bere fruitu artistikoak. Horrela jarraitu!

Doinua: Urzo xuri polit bat.

- I. Egitera nihoa orain ahalegina guztioi argitzeko bart amets egina: uso bat nekusan nik lerdan eta fina mokoan zeramala, tinko, ikurriña.
- II. Etxe euskotarretan nahi zen hura sartu eta euskaldunengan euskera itzartu; baina maiz egon arren ataritik gertu inork ere ez zuen berean onartu.
- III. Nahiz ta haren izena etorri ahora hura gonbidatzeko ez dugu ganora eta guzti-guztiok dezagun gogora ureztatu gaberik hiltzen dala lora.
- IV. Horregatik darabil orain bertsogintza hau ez dadila izan gauerdiko zintza usoa salbatzea da gure ekintza hortarako EUSKERAZ BIZI ETA MINTZA.

*AEDko bertsolari taldea:
Patxi Agirrebeña.*

Zein asmo duzu Aste Santuko oporretarako?



Mikel Montoia
(langilea)

Kanpora joatea pentsatu dut, Erribera aldera, denbora gutxi dudanez, alde hori ezagutzea pentsatu dut, bere enkantua baduela uste dut eta.



Txari Romero
(ikaslea)

Kanpora alde egitea pentsatu dut, seguraski Benalmadenara, baina ez dakit ziur.



Marisa Larrañaga
(ATS)

Hemen geratuko naiz, normalean ez naiz inora joaten. Senarrak eta seme-alabek oporrak izango dituzte, baina nik lan egin beharko dut.



Ramon Martinez
(jubilatua)

Nahiz eta San Vicente de la Sonsierrakoa izan, hemen geratuko naiz.

Hire azken tragoa

OTAMENDIN

Iegarreko pabiloia

Arrasate

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
asteleheneetik ostiralera
Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76

**MONTE
TABERNA**

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56



SOKOA

Iturriotz kalea, 12
Tfnoa: 79 96 25
Arrasate

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

“Fagor-Talde da, zalantzarik gabe, industri-ikerketarekiko kezka biziena duen antolamendu enpresarialetako bat. Talde honek bere salmenten %3a bideratzen du ikerketa -eta garapen- iharduetara, eta 200 pertsona ditu eginkizun hauetara emanak. Iharduera jakin batzuetan, ikerketarako baliabideak %8raino ere iristen dira”

(Cesar Coca kazetariak “NUEVO SIGLO” aldizkarian)

“Duela sei urte, Gipuzkoako Diputazioan sartzeko, emakume bakarra nintzen adiminezko-tekniari izateko lehiaketa librean, eta lehena izan nintzen. Teknikari sartu eta gero, ordea, frogaturik dago emakumeok gelditu egiten garela. Nik ez dakit geure errua den, baina garbi dago gizonezkoek badakitela bidea egiten eta nola mugitu, lan egiteaz gainera”.

(Esther Larrañaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur saileko zuzendariak, “El Correo” egunkarian)

“Nire eritziz lehen bait lehen utzi behar dugu momia orain arte zegoen lekuan, nahi ez dugun deboziorik berpiztu ez dadin, “Amandre Ines” ez bait da inoiz “santa” izan”.

(Juan Mari Astigarraga, Mondragoeko parrokoak “Hemen” astekarian)

“Kultura musikal guzti hau ez da herri edo kale mailan isladatzen, eta horrela, San Juanetako danborradarako Legazpiko musika-bandak etorri behar du, Mari-txu-Kajoi egunerako Beasaingo txarangak, eta edozein herri-ekintzatarako kanpoko jendea behar beti (...) Agian, badago hemen aztertu beharreko arazo sakona: Elitezko kultura musikala ote da “Arrasate Musikal”ena? Trikitixa-eskola, korala, txarangak, banda, orkestra, etab., zergatik ez dira Arrasate Musikal-en baitatik sortzen?”

(Arrasate Musikaleko bazkide batek DV egunkarian)

Zein da Udalaren egoera ekonomikoa? Zergatik sortzen dira Udal gestioetan superabitek?

Oso egoera ekonomikoa onean gaudela esan daiteke, zorren indizea %6,13koa da, oso txikia kontutan izanik %25era hel gaitzekela edo Donostiak duen %30era. Indize honek agian ez du esanahi handirik eta jendeari

idea oker bat eman diezaioke. Baina datu hori Udalak duen finantza autonomiari gehitzen badiogu, oso datu adierazgarria da. Gaur egun Udalaren finantza autonomia gutxi gora behera 400 milioitakoa da, hau da, 400 milioi gasta ditzakegu zorretan sartu gabe.


Bestalde esan beharra dago oso gestio zuzeneko Udalbatza izan dugula. Errekaudazioa %102 izan da eta oso zerga gutxi dago ordaintzeke.

Datorren urtean 1.312 milioi lortuko ditugu ohizko sarreren bidez eta 337 milioitako prestamo izango dugu, beraz ez gara %12ko zor indizera ere helduko, hau da, egoera onean mantenduko gara.

Superabiten arazoa dela eta aurten 27.700.000 ko superabita izan dugu, baina superabit hau formala da, epea bete baino lehen amortizatu duguna ere kontutan izan beharko genuke eta. Amortizazio hauek 20.300.000ptakoak izan dira, beraz superabita ia 50 milioikoa izan dela esan daiteke. Honez gain eskatuta geneukan 270 milioitako prestamo bat ere ez dugu gastatu.. Superabit hauek Hirigintza sailean dagoen gestio arazoengatik suertatzen dira. Ehun bat milioitako superabita esplikatu daiteke, proiektu batzuek oso berde onartu bait ziren, Iturripe edo Zaldibarko frontoia adibidez, baina gainontze-koa gestioa behar bezain ona izan ez delako izan direla esan behar.

Xabier Lasaga

Hirigintza Saileko burua



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

MIKEL OTXOA OMENALDIA




Martxo 19
Arratsaldeko 4,30

ATXABALPE FUTBOL ZELAIA ARRASATE • MONDRAGON

**REAL SOCIEDAD
C.A. OSASUNA**

**Parte hartu
ezazu
zeuk ere
Mikelen
omenaldian**



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



KÖMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

ARRASATEKO, ESKOLA PUBLIKOETAKO
MATRIKULA-EPEA IREKI DA:

MARTXOAREN 7tik 23ra

HEZKUNTZA EREDUAK:

- D EREDUA: IKASKETA GUZ-
TIAK EUSKARA HUTSEAN
- B EREDUA: HEZKUNTZA
ELEBIDUNA

*Hezkuntza partehartzailea,
zientifikoa, sortzailea, integrala,
euskalduna, Arrasatearra,
eta DOHAIN*

Informazioa osatu nahi baduzu, ikastorduetan eskolara etor zaitezke, dei ezazu telefonoz:

ERGUIN	79 77 74
S.ANDRES	79 00 44
FERIXALEKUA	79 05 53
MUSAKOLA	79 04 49

T x a n d a k a

Venezuelan ere egon ginen

Azken hilabetean izen handikoa izan da Venezuela, han gertatutakoak beldurgarriak izan bait dira. Behartsuen eraso gogorra eta bortitza izan bada, polizia, armada eta gobernuarena ez da makalagoa izan. Norbaiten alde jarri beharko banu, pobreen alde jarriko nintzateke.



J. M. Mendizabal *

Venezuela horretan, urte eder batzuk bota bait genituen Arrasateko seme batzuek.

Venezuelako lurraldeetara joan gineneke 30. urtemuga aurten beteko da. 1959ko, Urriaren 18an, atera ginen hemendik eta gure apaiz-lanari ekin genion Venezuelan. Urte horretako Abuztuko hilaren 2an apaiz egin ginen Donostian lau Arrasatear eta Eskoriatzako seme bat: Jabier Mendizabal, Alfonso Astaburuaga, Juan Garai eta lauok Eskoriatzako Txomin Armendariz izan zen. Alfonso ezik, besteok Venezuelara abiatu ginen beste zazpi lagunekin. Lau urte beranduago Felix Ormaetxea etorri zitzaigun. 1964ean Anton Markaide, eta geroxeago, Alfonso Gutierrez ere harantz etorri zen.

Urte horietan sekularrak ere joaten hasi ziren, mixioetan egiten diren lanak egitera; batez ere, Lanbide-Eskolak eraikitza. Horrela, han izan genituen: Xabier Mendiluze, Joseba Etxeberria eta Karmelo Azkoitia.

Urte t'erdi han pasa orduko jasan behar izan genuen Juanxu Garairen heriotza. 1961eko Martxoaren 21ean istripuz hil zitzaigun. Neure besoetan kamioi baten etzanda ospitalerantz neramala hil zitzaidan. Gaixo batentzako sendagilearen bila joan

omen zen gau hartan Lademocracia-tik Quiripitalera eta goitik behera zetorrela bide estu eta menditsu hartan bihurtu txar batean autoa pistatik atera zitzaion eta zaurituta atera zuten jeeparen azpitik. Telegrafoz abisatu ziguten gaueko hamaiketan. Bizirik bilatu genuen Quiripitaleko medikatura Ruralean. Azken igurtzia eman nion eta Okumare del Tuy-ko ospitalera heldu baino lehenago hil zitzaidan. Agian nik bizi izan dudan momenturik dramatikoa gau hartakoa izan da. Aste honetan beteko dira 30 urte lurperatu genuela Ocumareko hilerrian.

Zergaitik joan ginen hara? Hemen apaiz asko zegoelako eta han gutxi eta Mixiozaletasuna bazegoelako garai hartan eta erromantizismo puzkat bagenuelako. Eliz barrutiko mixiolari bezala joan ginen, Los Rios-eko talde berri bat bezala.

Alde batetik Berri onaren zabalteari eman genion dirua, indarra, bizitza, bai katekesian, bai irratilanean, bai eskola eta Lizeoetan, bai hitzaldi eta konferentzietan. Gazteriarekin harreman nahiko sakonak izan genituen.

Egin genuen beste lan inportante bat, hauxe izan zen: Lanbide-Eskolak, Eskola Profesionalak, eta Eskoal ruralak eraikitzea; Oraindik ere lanean dira.

Denera 40 apaiz gipuzkoar, bizkaitar eta arabar ibili gara handik zehar. Oraindik han gelditzen dira Txomin Armendariz eta Alfonso Gutierrez.

(*) Abadea eta Eskola Politeknikoko irakaslea

laburrak

✓ Bittor Aranzabalek zinegotzi izaten jarraituko

Hasiera batetan kontrakoa esan bazen ere, Bittor Aranzabalek ez dio utziko zinegotzia izateari. Hala ere, lan arazoak direla eta, Hezkuntz-Saileko lehendaritza utziko du, kargua bere alderkidea den Aitor Orobengoak hartuko duelarik.

Hemendik aurrera, beraz, Gobernu Batzordea, Hirigintza, Hezkuntza eta Auzoak arloetako batzordeaz Orobengoa arduratuko da; Sanitatea, Euskara eta Pertsonala Aranzabalen ardurapean geldituko dira. Bestalde, alderdiak, Batzorde batzuetan zeharkako ordezkapena izango du.

✓ "Bergara Moda" k Udaberri-Udarako bilduma aurkeztuko

Igandean, hilak 19, "Txibisto" dantzatokian "Bergara Moda" taldeak aurkeztuko du 89ko Udaberri-Udarako erropo-bilduma. Desfilea 7etan izango da.

Aurtengo honetan jantzigintza arloko hamalau dendek aurkeztuko dute beraien jantzi-bildumak. Desfilean Bergarako ilemoztegi eta estetikako arloetako profesionalen lanak ere kabida izango dute.

Denda bakoitzeko sei edo zortzi modelo afizionatuk antolatzaileek prestatutako koreografiaren ritmoaz aurkeztuko dituzte jantziak.

✓ Jota ikastaroa

Gazterien Batzordeak jota-ikastaroa antolatuko du 30 ikaslerentzat, Apirilatik Maiatzara, ostiralero. Klaseak "Lore Gazteak" taldeko sei partaidek emango dituzte. Izenemateko epea hilaren 31rarte zabalik dago.

Agirre Miota Gestoria
Zerga deklarazioak
Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Memesa
Arrasate
79 42 22

Impi gozoak
Gosariak eta gozokiak
Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34



Gangoiti Europar Parlamentuaz mintzo zen

Gangoiti batzokian

Aretoa betetzen zuen publiko baten aurrean mintzo zen ostegunean, hilak 9, Jon Gangoiti PNVko europar parlamentaria.

Hitzaldia bi zatitan banatu zen.

Lehen zatian 1993rako Europar izango omen diren aldaketak azaldu zituen: era guztietako mugak (pertsonekin zein langileentzat; zerbitzu zein finantziatutako mugak...) desagertuko dira kontinente zaharrean. Konpetentzia areagotze eta hainbat zergen desagertzearen ondorioz kontsumo-produktoak ere merkatuko dira. Honek erronka bat suposatuko luke euskal enpresentzat, ikerketa baten arabera Euskal Herriko enpresen %80a preparatuta dagoelarik desafiari ongi erantzuteko. Gangoitiren esanetan,

"1993tik aurrera Europa, orohar, aberatsagoa izango da, baina lurralde aberats eta pobreen arteko ezberdintasuna areagotu egingo da."

Bigarren zatian PNVren hauteskunde-programan izango diren punturik garrantzitsuenak azaldu zituen: nazionalismoen defentsa, eta ardatz atlantikoaren defentsa, alegia. PNV "Agrupación Independiente Canaria", "Coalición Galega" eta "Partido de Castilla y León" taldeekin batera presentatuko da hauteskundeetan. Europarren arteko komunikazio-infrastrukturak Atlantikoaren bidez egin dezaten borrokatuko dute.

EHE erakundearen eta pakearen manifestazioaren aldeko moziak onartuta

Ostiralean, hilak 10 izandako plenoan aurkeztutako gai guztiak onartu ziren; zerrendako lehenengo bederatzia puntuak aho batez.

Simon Martinez ordezkaturik, Jose Mari Usatorre Lehen Alkateordea eta Gobernu Batzordekidea izen datua izan zen.

Sesioan Deba Garaiko Mendi

Nekazaritzarako Elkartean sartzea erabaki eta bertarako alkatea, Udalordezkaria izendatu zuten.

Euskal Herrian Euskarazek "Euskaraz bizi eta funtzionatzea erabaki duten herri eta Udal euskaldunekin elkartasun adierazpena" izeneko mozioa ere aurkeztu zuen. Mozioaren arabera, Bizkaiko Gobernadore zibila Aulestiako Udalaren erabakiaren aurkako deuzestapen agindua dela eta, Arrasateko Udalak Gobernadore Zibilen desagerpena eskatzea eta Aulestiako Udalari laguntzea

erabakitzen du. Mozioa, PNV, EA, HB eta EEn aldeko botuekin eta PSOeren kontrakoekin, onartu zen. EEko zinegotzia den A. Orobengek bere alderdiaren aldeko jarrera aurkezteaz batera zera komentatu zuen: *"asmo ederra da; baina gaur egun Aulestiako Udalean egin dutena hemen egiteko ez gara gai. Kontrakoa pentzatzea, geure buruz ilusio faltsurik egitea litza-teke"*.

Azkenik HBk izan ezik, beste talde guztiak baietza eman zioten larunbatean, hilak 18. Bakearen alde Bilbon izango den manifestazioa apoiatuz aurkeztu zen mozioari.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565

LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

laburrak



Lehenengo lana: lokala egokitzea

Deba Garaiko Lantegi eskola

Eskola-Tailerra "Metalurgica Cerrajera Mondragonesa"ren erai-kuntza zaharrean kokatuta dago: 1.700 m²ko lurraldetan, hain zuzen. Bertan bost arlotako irakaskuntza ematen da: Igeltseritza-Kanteria; Instalazio elektrikoak; Iturgintza; Zurgintza eta Basoak eta Haztegiak. Alor hauetan 70 ikasle ari dira ikasten eta lanean. Proiektua hiru urterako da, hiru etapatan banaturik dagoelarik:

1) Formazio-fasea: lokala-
ren egokitze-lanak, bertan
ikasleek espezialidade guztie-
tan arituko direlarik.

2) Kualifikazio-fasea: eta-
pa honetan espezialidade bat
aukeratuko dute.

3) Espezializazio-fasea:
ikasleak espezializatuko dira
aukeratutako espezialidadean,
eta bi proiektu konkreturi
ekingo zaie: Bergarako Epai-
tegiaren Espetxea eta Ibarane-
ko etxe-orubearen (Urkulu ondoan)
berrabiltzea.

Proiektuak 300 milioietako aurre-
kontua du (INEMek: 232, Udalek:
gainerakoa).

Ikasleek, bestalde, lehenengo sei
hilabetetan, 550 pta. jasoko dute
egunero; eta kanpotik datorrenak,
1.415. Lehen etapa hau bukatuta,
Mankomunitateak formazio edo
praktikerako-kontratua egingo die.

Sabino Martiarturen zuzendarit-
zapean, Urtarrilean 24ean hasi ziren
lanean, inaugurazio ofiziala halere
astelehenean izango da.

Insumisioa, Ostiralean, hi-
lak 10, estatuko hainbat ka-
rtzeletan dagoen kontzient-
zia-objetore insumisoei el-
kartasuna adierazteko, ikas-
leek borroka-eguna izan zu-
ten. Soldaduzka eta Ordezko
Zerbitzuen aurkako sloganak
oihukatuz, eguerdian ehun
bat lagunek zeharkatu zituz-
ten herriko kaleak.



Mutilak beste neska soldadutzaren kontra

✓ Zirkulazio zerga

Udalerrri honetako Zergadun guz-
tietei jakinarazten zaie 1989ko Ibil-
gailuen Zirkulazioari buruzko Udal
Zerga ordaindu daitekeela, boron-
datezko epearen azkenengo eguna
Martxoaren 31 izango delarik. Datu
hau pasa ondoren, ordaindu gabe
geratzen diren ordainagiriak %20ko
gainkarguarekin kobratuko dira.

✓ Ur, zabor eta Estolderia tasa

Udalerrri honetako zergadun
guztietei jakinarazten zaie 1988ko 4.
hiruhilabeteko Ur, Zabor eta
Estolderia-Tasaren ordainagiriak
ordaindu daitezkeela, borondatezko
epearen azkenengo eguna
Apirilaren 14ean izango delarik.
Data hau pasa ondoren ordaindu
gabe dauden ordainagiriak %20ko
gainkarguarekin kobratuko dira.

✓ Kultur Bideetan: Edurnezuri

Eusko Jaurlaritzak, CLPk eta Uda-
lak antolatutako "Kultur Bideetan"
izeneko zikloari amaiera emanaz,
larunbatean, hilak 18, arratsaldeko
6etan Amaya antzokian, "Edurne-
zuri" musikalaren aurkezpena
izango da. Obra "Donostiako
Antzerki Musical San Ignacio"rena
da eta haurrek interpretatzen badute
ere, helduentzat gomendagarria da.

✓ Inesek ez du izango erakuske- tarik

Udalak ezetza eman dio Ines Ruiz
de Otaloraren gorpuari buruzko era-
kusketa egiteko proposamenari.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren
diagnostiko goiztiarra, bular patolo-
gia, zitologia, menopausia, haurdu-
naldiaren kontrola, antzutasuna,
sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previasa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

ARRASATE


Hiriguneko "Plan Especial de Rehabilitación Integrada" delakoaren erizpideak

Hilaren lean Udalekoek, erredakzio-taldekoek, Mankomunitate eta Suradesako partaideek eta tekniku munizipalek egindako bileran "PER" delakoa zuzenduko duten erizpideak hartu ziren:

— **Gazteluondo:** Suradesaren proiektua aurrera eramango da; honek bi etapa izango ditu: a) eraikuntza bat ere ikutu barik, eta ortu batzuk eta almatzen bat hartuz, Gazteluondo eta Arrasateko Pasealekua lotuko duen 6 m.tako bidea zabalduko da. b) bi eraikuntza birmoldatuko dira.

"P.E.R"aren helbururik garrantzitsuenetarikoa herri harresituaren ingurabidea osatzea da.

— **Kanpatorpea:** hemen ez da ezer egingo. Baina Optika dagoen edifizioa botatzeko posibilitatea ikusten da, bi arrazoigatik: a) baliozko eraikuntza baten ondoan (Iturriotz



Gazteluondo eta Arrasate P. lotzeko proiektua

29koa) egonik; eta honi kalte egiten diolako; b) orain kantoi estua dena zabaltzeko.

— **Arrasate Pasealekuaren luza-pena:** Arrasate Pasealekua, Erdiko kalearen bidez, eta kantoi bat zabal-

duz, Ferrerias kalearekin lotzea nahi da. Ferreriasen plazatxo bat irekiko litzateke.

— **Karkabak edo kainuak:** Arrasateko bokazio historikoa berreskuratu nahian, karkaba edo kainuak, espazio publiko bezala, berreskuratuko dira.

— **Planean sartuko ez diren etxebizitzak:** hiru pisutik gora duten eraikuntzak ordenamendutik kanpo geldituko dira. Halere, Planearen ezaugarrien arabera berrikuntzak egin nahi izan ez gero, subentzioak jasotzeko posibilitatea ikusten da.

— **Espazio Publikoak:** honako espazio publiko hauek zabalduko dira: a) plazatxo bat Ferreriasen; b) Mendia Jauregiko lorategia (Ferreriasen hau ere) publikoa izango da; c) Arrasate Pasealekuko leian eta Erdiko kaleko 23an egingo diren plazatxoak pribatua izateko posibilitatea ikusten da.; d) Santa Barbarako sarbidea hobetzea.

Proiektuak epeka egingo dira, hemendik zortzi urte barru bukatzea espero delarik.

Jaiotzak

Jon Vicandi Fernandez, Martxoak 1.
 Laura Nevado Iglesias, Martxoak 7.
 Ainhoa Cabello Busto, Martxoak 7.
 Nerea & Amaia Erdabide
 Bolinaga, Martxoak 8.
 Altzol Azkarraga Zubizarreta,
 Martxoak 6.
 Jonatan Tierno Diaz, Martxoak 9.
 Naroa Jimenez Belar, Martxoak 11.
 Aitor Matilla Carmona, Martxoak 11.
 Iñigo Salterain Arana, Martxoak 13.
 Iosu Lopez Olivenza, Martxoak 15

Ezkontzak

Zibilak:

Inacio Lobato Gonzalez eta Matilde Nogales Martin, Martxoak 11.
 Victor M^a Salaberri Urizar eta M^a Belen Nafarrate Bolinaga, Martxoak 11.
 Arcadio Benitez Rodriguez eta M^a Jose Zeziaga Alfageme, Martxoak 11.

Elizan:

Ascensio L. M^a Azkarate Lizarralde eta Ana M^a Garcia Fdz., Martxoak 11.



Garibai Plaza birmoldatzeko 16 proiektu aurkeztu dira

Arkitektura Proiektuak, hilaren 19arte ikusgai daude Monterronen Donostiako Arkitektura Eskolako Mikel Garairen hamalau ikaslek eginiko Garibai Plazaren birmolda-

tzeko proiektuak. Garairen esanetan "arkitekturak beti utopiarantz jo behar du, baina planteamendu errealetan oinarriturik". Proiektuetan bi eraikuntza publiko sartzen dira: altzairu-museoa eta hotela. Proiektuek, besteak beste, bi helburu dituzte: edifizio pu-

blikoak eta etxebizitzak elkartzea, alde batetik; eta espazioaren mugaketa ezartzea herri barruan, bestetik. Garai, Udaletxearen obrak zuzentzen ari den arkitektoa dugu.

Iosu

argazki denda

*ARGAZKILARITZARAKO MATERIALA
 *ERREPORTAIK
 *BISUTERIA

Olarte kalea 11
 Tfnoa 79 82 60

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
 IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Lehenago egunean umeen inbasioa izan genuen erredakzioan. El Ferialeko Ikastolatik etorri zitzaizkigun eta "flipatu" egin zuten hainbeste makina arrarorekin. Argazkian agertzen direnak ez dira etorri ziren guztiak, batzuk izkutatu egin ziren eta.

Bisita asko izan dugu, baina ez genekien umeengan kazetaritzarekiko zaletasuna hain goiz sortzen zenik.



Hona hemen Arrasate Press-zale amorratu batzuk!



Igarri zen ez dela maiz dokean jolastean

Ostiralean AEK-kock **Doke txapelketa** izan zuten Santa Barbaran. Batzuk besteek baino punteria finagoa izan zuten eta azkenean, 38 partaideren artean, Pepeluk, Jesus Perezek, Belen Jimenezek, Amaia Hernandezek eta Marije Errastik osatutako taldea garaile suertatu zen. Sari gisa **karapaixo** goxia eskuratu zuten.

Martxoaren 8an "Emakume-eguna" dela eta, Santamainako "Famili eta Gizarte-Heziketa Zentrua"n talde bat bildu zen. Kafearen ostean, solasean aritu ziren eta, besteak beste, Nekane San Migelek zera esan zuen: "hezkuntza aldatzen ez den bitartean, emakumeok bortxakeriak sufritzen jarraituko dugu".



Emakumearen egoera gizartean aztergai

izen propioak

Asier Larreategi, 17, Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleak Kanarietara zazpi egunez beste batekin joateko aukera irabazi du ETBko "Funtzioa" saioan. Euskaltegian 7. urratsa ikasteaz gain, S. Viatorren REM bigarren kurtsoa egiten ari da.

Patziku Perurena, 29, Leitzañ bizi den goizuetarrak beste liburu bat argitaratu du, 'Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra', Pamiela argitaletxean. Patzikuk bi urte eman zituen Eskola Politeknikoan, non 1978an Maisutza industrialara amaitu bait zuen.


Jon Garai, 23, hamalau hilabetez kultur arduradun aritu ondoren, Mondragoeko Udalaren Kultur eta Hezkuntza saileko arduradun tekniko izendatu dute. Jon, Lore Gazteak taldeko dantzaria da, Magisteritza du egina eta soldadutzara joatear dago.

Asier Agirrebeña, 22, Bergarako "Gaberixa" baserrikoa, S. Antonio auzoan. Deba Garaiko Txiste Txapelketan inor gutxik espero zuen irabazlea. Harri, zur eta errementatu beharrean utzi zituen guztiak bere graziaz. Asier Lakor lantegian ari da lanean.

Tomas Azula, 55, hiru urtez Monterroneko parke eta etxearen zaindaria aritu da behin behineko lan-kontratuaz. Orain, oster, behin betikoa egin diote, lan bera egiten gela dezan.

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84



UDALA


Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

1989ko aurrekontuak onarturik

Dagoeneko onartu dira 1989 urteari dagozkion aurrekontuak Udalean, nahiko goiz onartu ere iaz Maiatzean onartu zirela kontutan izaten badugu. Teorian Udaletxeko aurrekontuek urtea hasi baino lehen egon behar dute onartuak baina hau oso gutxitan gertatzen da edozein udallean. Aurten Udalak 1.649.958.358 pta.ko aurrekontua du eta iazkoarekin gonbaratuz gero, %14,67 gehitzen dela esan behar.



Asteartean aurrekontuak azaltzeko prentsaurrekoa eskaini zuten Udal ordezkariak

Aurrekontuen zentzua

Sarritan entzuten dugu aurrekontu hitza, baita berauei garrantzi handia eman ere, baina agian beren esanahia zehazki ulertu gabe. Udaletxe bateko aurrekontuak onartzea Udalbatza horren urteko gestioa edo eginkizuna onartzea da; hau da, urtean zehar udalbatza horrek egitea pentsatutako proiektuak onartzea, gero hauek nola gauzatu eta gainerako zehaztasunak onartu beharko badira ere.

Aurtengo aurrekontuak Udaletxean errepresentazioa duten hiru partiduk onartu dituzte; hau da, PNVk, EAK eta HBk —nahiz eta HBk aurkeztutako emendakin bat ez zen onartu— eman zieten aurrekontuei beren oneritzia, eta EE eta PSOEk

aurkako botoa eman zieten asteazkenean burutu zen aparteko plenoan.

Aurrekontuak onartzean partiduek Udalaren finantz egoera ona azpimarratu zuten, momentu honetan dituzten zor guztiak ordaintzeko

adina diru dutelarik. Dena den, beren hitzetan, mailegu hoiek ordaintzeak ez luke zentzurik izango, orain dituzten maileguak oso interes txiki-koak bait dira, eta gerora interes handiagoko beste batzu eskatu beharko bait lituzkete.

Udalak momentu honetan %6ko zor-indizea du eta datorren urterako %12ko zor-indizera heltzea erabaki dute, herriak dituen behar batzuei aurre egin behar zaiela ikusi bait dute. Dena dela, zorren gehitze honek hurrengo korporazioari zailtasunik gabe lan egiteko aukera emango dio.

Nabarmen daitekeena

Aurtengo aurrekontuetan inbertsioek duten pisua oso garrantzitsua da, 747.262.373 pta.koa, hain zuzen ere. Diru-kopuru horretatik erdia gutxi gorabehera kultura eta kirolatan infraestruturara handitzen inbertituko dira.

Datorren urterako pilotaleku berria egiteko proiektua dago, Zaldibar estaltzeko proiektuak behin-betirako alde batera utzita. Pilotaleku berri hau, oraindik erabaki gabe badago ere, Iturripen edo Ferialean egitea pentsatu da eta bera egiteko aurrekontuetan 75 milioitako partida gorde da.

Zaldibar estaltzeko proiektua alde batetara uztean PSOE ezik partidu guztiak bat etorri ziren, kontutan izanik, herriak proiektu horren aurrean izan duen aurkako jarrera; baita orain arteko proiektuak oso

Aurten inbertsio ezberdinetan

**747.262.373 pta
gastatuko ditu Udalak**

garestiak zirelako ere eskaintzen zituzten zerbitzuen aldean. PSOEkoek aldiz Zaldibar oso gutxi erabiltzen dela azpimarratu zuten eta ondorioz pilotaleku berri bat egin beharrean, berau estaltzearen alde agertu zuten beren burua. Beste

partidu guztiek aldiz Zaldibar pilotaleku bat baino gehiago dela adierazi zuten eta pilotalekuaren inguruan erabaki bat hartzeko orduan herritarrentzat duen zentzua ere kontutan izan behar dela.

Pilotaleku berria, herriak duen behar bat dela azpimarratu zen asteazkeneko plenoan, eta profesionalak jokatzeko pilotaleku bat baino gehiago izango dela azaldu, bertan haurrak trebatzeko frontoi txikiak ere eraikiko omen dira eta.

Aurrekontu hauetan agertzen den beste proiektu garrantzitsu bat Iturripen egitea pentsatu den polikiroldegiarena da. Proiektu hau kirola deskongestionatzeko asmo bati loturik agertzen da, baina berau egiteko Giza-bidea fundazioarekin oraindik lortu ez duten akordioa lortu behar dute Udalekoek.

Aurten Udalak, biztanleko 28.488 pta. inbertituko ditu eta biztanleko izango dituen gastuak 62.901 pta.koak izango dira.

Udalak biztanleko jasotzen duen diru sarrera 50.038 pta.koa da eta

berrirentzako lanpostuak sartzea eskatu zuen. Udaltzain berri hauek eskatzerakoan Udalak bere udaltzaingo berezia izateko

behar den dirua, beste zerbitzu batzuetan gastatu beharko litzateke, hilerri berrian, Gurea zineman, auzoetan, eta betan, hain zuzen ere.



Eztabaida luze baten ondoren Zaldibarko pilotalekua ez ezaltzea erabaki da

beharra agertu zuen eta iaz San Andres auzoan martxan jarri zen auzo-udaltzaingoaren esperientziaz balantze baikorra egin ondoren, esperientzia honekin jarraitzeko asmoa azaldu zuen.

Enmienda honek ere ez zuen aurrera egin, EE eta PSOeren aldeko botuak bakarrik lortu bait zituen.

Azken emendakina PSOekoek aurkeztu zuten, nahiz eta beste zinegotziek honen berri lehenago ez izan. Beren eritziz, Arrasateko ikastetxe ezberdinei ikasleko mantengastuak ordaintzen zaizkien era berean, Institutuari ere ordaindu beharko litzazkioke, eta hala eskatu zuten. Emendakin honek PSOeren aldeko botuak bakarrik jaso zituen. Bestalde auzoetan inbertsio gehiago ere eskatu zituzten, aurrekontu hauetan auzoak bazterturik geratzen direla azalduz. Emendakin honek ere ez zuen aurrera egin eta ondorioz aurrekontuak hasiera batean plenoan aurkeztu ziren era berean onartu ziren.

Udalak biztanleko 50.038 pta.ko diru sarrera izango du eta biztanleko ezarrita duen presio fiskala 18.933 pta.koa da

biztanleko ezarrita duen presio fiskala 18.933 pta.koa.


Emendakin desberdinak

Aurtengo aurrekontuak onartzera-koan, hiru partiduk azaldu zituzten beren emendakin desberdinak.

HBk aurrekontuetan 6 udaltzain

Emendakin honek EE eta HBren baieztoko botuak jaso zituen eta beste partiduen ezezkoa; beraz, ez zen onartu.

EE da emendakina aurkeztu zuen beste partidu bat. Beren ustez pilotaleku berria giten gastatu



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

PRONOVIAS DOCHY



ezkontzak

**Independencia 20
GASTEIZ**

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA

Posta kutxa 361
Tf: (943) 429945
20080 - DONOSTIA

BIDEOAK

Irudi paregabeak, euskara goxoan, natur zientziaz, fisikaz, historiaz, teknologiaz eta astronomiaz jabetzeko. Piztu telebista ondoko bideo hauek ikusteko.

	PREZIOA (aleko) %6 BEZ barne
Robot Industrialak	6.360
Bizia Lurrean (13 kapitulu)	6.360
Fisika Praktikan (10 kapitulu)	4.770
Hamarren berredurak	2.915
Biobonba	6.360
Lehen Paradisua (4 kapitulu)	6.360

IKUSIZ IKASI!

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

Mikelek ahaztuko ez duen partidua

Arrasatearron artean, tamalez, Mikel Otxoa ezagun bilakatu da, tamalez diogu, 1987an Atotxako futbol zelaian izan zuen istripuaren ondorioz bihurtu bait da ezagun. Igandean omenaldia egingo zaio eta, hau dela eta, berarekin egon nahi izan dugu. Bere etxean aurkitu genuen eta gurekin hitzegiteko oso prest gainera.



Mikel Otxoa

— Arrasate Press: Nola sortu da omenaldiaren ideia?

— Mikel: Beno ba, gure lagun batzuk telebistaren bidez Albeko, Celtako jokalaria egin zioten omenaldiaren berri izan zuten, eta handik sortu zen omenaldiaren ideia. Nire kasua antzekoa zenez, beno ez hain antzekoa, zeren nik futbol zelaian izan nuen istripua eta berak kotxe istripu bat izan zuen, niri ere omenaldia egitea pentsatu zuten. Harrez gero komisio bat sortu zen eta beraiek antolatuta dute guztia Erreala eta kazetari batzuekin kontaktuan jarri etab.

— Errealak ez al du ezer egin?

— Herriko jendea oso ondo portatu da gurekin, laguntza handi eskaini digu, baina Errealak hemen jendea mugitzen hasi arte ez du ezer egin, beren aldetik ez da ezer irten.

— Pasa den astean Atotxako futbol-zelaira joan zinen...

— Bai, hori jendea omenaldirako girotzen joateko egin genuen. Hemeretzi omenaldia egongo dela eta propaganda piskat egiteko asmoz. Gure asmoa Studgarren aurkako partiduan ager-

herriko jendea oso ondo portatu da gurekin, laguntza handi eskaini digu

tzearena zen, baina agian UEFAk trabak jarriko zituela eta, Errealekoek Valladoliden aurkako partiduan irtetzea proposatu ziguten eta beno, hori izan da guztia.

— Animaturik al zaude igandera-ko?

— Bai, urduri samar, baina, tira, nerbioso egotea normala dela uste dut, horrenbeste jende eta denak zure gainean... Ez naiz descroso sentitzen, urduri samar. Eguraldiak laguntzea espero dezagun.

— Erreala eta Osasunaren artean egingo den partidua da zuk antolatuko zenukeena?

— Bai, baietz uste dut, dena den, batak ala besteak irabazteak niri berdin dit.

— Omenaldia nahikoa al da?

— Beno, ez dakit, behintza gauza ugari konpontzen ditu, denak ez baina laguntza handia da.

— Istripua eta gero zer nola aldatu da zure bizitza?

— Kanpoan egon nintzen, Toledon zortzi hilabetez, eta orain hemen egunero erreabilitaziora joaten naiz. Goizez erreabilitaziora joaten naiz eta arratsaldez sista egin ondoren etxean jinasia egiten dut, hemen jarrita ditut aparailuak eta bertan egiten dut

jinasia. Bestela kalera joaten naiz, eta irakurtzea eta txanponak kolekzionatzea atsegin dut,

lehen ere banuen ohitura hori baina orain denbora libre gehiago dudanez, gchiago aritzen naiz horretan. Lehen futbolearen nintzen eta, hasieran oso gogorra egin bazitzaidan ere, ohitu egin

behar, istripua izan duzula eta horrela geratu zarela onartu behar, ez dago besterik.

— Gure herrietako kaleak ez omen daude horrelako arazo bat duten pertsonek ibil daitezten prestaturik, zuk zer esango zenuke?

— Beno leku batzutan ibiltzea ez da batere erraza izaten baina espaloiak eta badituzte ranpak jaitsi ahal izateko. Deserozoez gertatzen dena adokinaturik dauden kaleetan zehar ibiltzea da.

— Etorkizunerako zein asmo duzu?

— Ez dut planik egin, ez dut metarik jarriko, datorrena hartuko dugu.

Dena den eskerrak eman nahi genizkioke guri lagundu diguten guztiei eta omenaldia antolatzaz arduratu direnei.

Dagoeneko dena prest dago Mikelen omenaldirako. Omenaldi honetan herriko jende askoren parte hartzea egongo da eta berau ondo burutu dadin ahaleginak handiak egin direla esan behar. Igandeko omenaldian nabarmenena Errealak eta Osasunak jokatuko duten futbol partidua bada ere, omenaldia herriko kuadrilak goizez Mikelekin elkartzearan hasiko da. Orain espero dezagun eguraldiak lagun diezagula.



Dena prest iganderako

Beste gairik ez da egon astean zehar. Lantegi nahiz dendetan, zero lerrokoen salmentaren bidez, dirua bildu da. Despistaturen bat oraindik balego, esan behar sarrera mota honek ez duela balio partidua ikusteko.

Zifrarik oraindik ez badago ere, diru bilketa arrakastatsua suertatzen ari dela esan daiteke.

Iganderako, honako hau da koa-

drilek antolatutako programa:

— 11,30etan: koadrilen bilketa Portaloian.

— 12etan: lore-eskaintza Mari-txu-Kajoiri.

— 12-2 (gutxi gorabehera): Herri-Poteoa erreaz jantzita. Bitartean, Gaiteroen txaranga eta Hanka-Luzcak giroa berotuko dute.

— 2-3 (gutxi gorabehera): Atxabalpera oinez joango da, pasakaleak dantzatuz.

— 3etan: bazkaria Atxabalpen bertan.

— 4,30etan: partidua: Real So-

ciudad - Osasuna. Arbitroa: Urio Velazquez.

— 5,15etan: partiduaren atsedean Udalaizetik parapentean hainbat gazte botako dira.

— 6,15etan: partidua bukatuta, oinez Arrasatera.

Partidua baino bi egun lehenagorako, futbolari buruzko hitzaldia antolatzeko asmoa zegoen: hiru javierrak, Clemente, Azkargorta eta Irureta edo Gil y Gil & Clemente ekarri nahi zituzten. Baina egun horretarako ezinezkoa suertatzen zenez, aplazatu egin da. Kontuen garbiketarekin batera egingo da.

Oinez joatea eskatzen da

Eskatzen zaio biziki jendeari Atxabalpera paseoan joatea. Zelaiaren inguruetan, Fagor eta Garagartza barne, bakarrik 700 aparkaleku daude; eta kanpotik 5.000 lagun etortzea espero da.

Azkenik, minikataiaren zozketan 5.000tik gorako zenbakia aterako balitz (Martxoaren 18ko loteria nazionalaren azken lau numeroak) partiduan berriz zozkatuko litzateke.



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

Arrasateko "San Frantzisko Xabier" Ikastolan 1989-1990 ikasturte berrirako izena emateko epea zabalik dago.

Inskribatzeko epea: Martxoaren 1etik 23arte

Lekua: Gazteluondoko ikastetxea

Erakusteko bi eredu eskaintzen ditugu:

* Ama hizkuntza euskera dutenentzat: "D" eredu.

* Ama hizkuntza erdera dutenentzat: Metodologi berria guztiz euskaraz.

podiuma

Patxi Gorosabel, 15 urte rugbyan

Arrasaten rugby taldea 1972an "Los bufalos" izeneko koadrilak sortu zuen, eta Patxi bi urte beranduago sartu zen ekipoa. Handik hona euri asko egin du, "lehen hemen rugbya indar soila zen. Jo eta aurrera, "animalien deportea" zen. Orain teknika askoz gehiago lantzen da".

Taldea 1985etik 87ra desagertu zen, duela bi urte berriz berrageritzeko. Ekipoa entrenatzaile berri batekin berrindartu da, Peio Iriart iparraldekoarekin. "Honek iraultza ekarri eta gauzak bere tokian ipini ditu; dena goitik behera antolatzen ari da. Lehen ez zegoen organizaziorik. 15 lagun biltzen ginen, hartu kotxeak eta jolastera. Igandea pasatzeko modu bat zen, kanpora irten, gero poteoa... adiskidetasuna nagusi zen".

Orain lau "zahar" kenduta, jokalari denak gazte eta berriak dira. Talde berri honen helburua "Euskal Ligara" igotzea da, eta gerorako gazte-mailakoa regionalean sartzeta. Patxi oraingoz zelai berria egiteko posibilitaterik ez du ikusten, "ni gustora nago Iturripen, ohituta. Gainera zulo guztiak eza gutzen ditu".

Hainbeste urtetan Federazioarekiko eritzi txar eta anekdota pilo bat bildu ditu. "Arrasate urrin



Patxi lagun asko egin ditu rugbyan jolasten

dagoelako edo, beti izan gara azkenak dirua jasotzeko. Gainera orain Liga ez dute batere ondo antolatzen. Lehen 15 ekipok jokatzen genuen elkarrekin; orain lurraldeka banaturik gaudenez gero, denboraldia oso laburra egiten da". 1979-80eko denboraldian taldea 1. mailara igo zen, "baina taldeko oinarria osatzen genuenok, Olatxo, Marañone, Ceciaga, Mendizabal eta bostok soldauzkara joan behar izan genuen eta hurrengo urtean jeitsi ginen berriro. Urte berean Gipuzkoako Kopa irabazi genuen, eta kopa eskuratzera joan ginenean, urte hartan ez zegoela koparik esan eta Atletiko de San Sebastian-ekoei eman zieten."

Patxiaren lanak badauka jarraipena bere familia barruan; bere lehengusua den Sebas Gorosabel, Espainiako gazte-mailako selekzioan jolasten dabil eta.

□ Besaide: Negu teknikaz ikastaroa

Besaide Mendizale Elkartek "Negu teknikai" buruzko hasierako ikastaroa antolatu du. Tokia: Gavarnie, Apirilak 1 eta 2. Prezioa: 2.000 pta (bazkaria norberaren kontura). Izenemateko azken eguna: Martxoaren 23a. Parte hartu nahi duten guztiek federaturik egon beharko dute.

□ Atxabalpeko tribuna estalia

Atxabalpe futbol-zelaian tribuna estaliak ipiniko dira. Guztira, obrek 17.542.000 pta.tako aurrekontua dute.

□ Klubek AUKEA utzi


Aurrekontuak onartzen diren aste berean kirol-taldeen eta alderdi politikoaren arteko desadostasuna areagotu egin da. Astelehenean klubek alderdien ordezkariak aurrekontuei eta hauen jestionari buruzko batzar batetara deitu zituzten, eta hauek agertu ez zirenez, klubek ordezkariak AUKEA uztea erabaki zuten.

- **futbola:** asteazkenean; 4,45etan Atxabalpen: Mondragon-Mungia.
- **eskubaloia:** larunbatean; 6,30etan Zumaian: S.D. Pulpo-Arrasate Kirolak.
- **rugby:** igandean; 11etan Hernanin: Hernani-Arrasate Kirolak.
- **saskibaloia:** larunbatean, 8etan Logroñon: Pancorbo-Okendo Kirolak
- **rallye:** XV. Igoera Gorlara, 11,30etan beteroentzat; 12etan: amateurentzat.
- **futbito:** larunbatean Eskoriatzan "futbitoko 25 ordu".

Denborapasen soluzioak

Zutabe nahasiak

"Denak ala inor ez dena ala ezer ez bakarka ezin da fusilak ala kateak"



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea


Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

Adimen artifiziala sistema hidroelektrikoetan



Urtegiak sistema hidroelektrikoen parte dira

Sistema hidroelektriko bat elementu ugari osatzen du, hala nola, urtegiak, erreka tarteak, energia sortzen duten zentralak, ura ekartzen duten ibai arroak, herriak, industrialdeak, etab.

Energia ekoizten duten konpainiek, etorkizunean izango duten energia eskaerei aurre egin ahal izateko, gaur egun duten energia sor-

honetan zehar Iberduerok eta Ikerlanek elkarrekin lanean dihardute, adimen artifizialaren teknika eta tresnak sistema hidroelektrikoen esplotazioen simulazio, hobetze eta modelazioan aplikatu ahal izateko.

Sistema hidroelektrikoen esplotazioak helburu batzuek lortzeko erabaki batzuek hartzea eskatzen du. Proiektu honetan aztertzen diren

tzeko sisteman zer-nolako inbertsioak egin behar dituzten eta inbertsio hauen errentagarritasuna aurrikusi behar dute, bai ikuspuntu teknikoetik bai ikuspuntu ekonomikoetik.

Azken urte

erabakiak esplotazioari dagozkien, nola ponpatu, bildu, eskaerei aurre egin etab. Eta lege, ekologi eta ziurtasun aldetik ematen diren murrizketak betetzea, ur eskaerei aurre egitea eta argi indarra sortzea dira lortu nahi diren helburuak.

Dagoeneko eredu bat eraikirik dute eta berarekin egin diren probek oso emaitza itzaropentsuak eman dituzte. Orain arte erabili izan diren metodoekin gonbaratuz gero, prototipo honekin ordenagailuan sistema hidroelektrikoa errepresentatzeko behar den denbora gutxitzea lortu da, sistema konplexutasun handiagoan azter daiteke eta adituentzat oso lagungarri suertatu daitekeen tresna da. Honez gain sistema hauek lan egingo duten pertsonak trebatzeko tresna bilaka daiteke.

MENSAJEROS 79 96 97

MIRW
WORLDWIDE COURIER

**HIRIBARNEKO, ESTATU MAILAKO
ETA NAZIOARTEKO
BIDALKETAK**

Informa zaitez
Deia doan: 900 300 400

Miles Davis

Jazzaren mundutik dator, baina sailkapen eta muga guztien gainetik kokatzen da musikari hau, hain da nabaria beronen maisutza eta eragingarria beronen lana. Oso estilo ezberdinetako musikariek aitortzen dute Davisekiko duten zorra eta lilura, berak urratutako bide berriek aberastu egin bait dute egungo musika.

Miles Dewey Davies, Estatu Batuetako Illinoisen jaio zen, 1936an. Hemeretzi urte besterik ez zuela, Charlie "Bird" Parker jazz gizon mitikoarekin jo ohi zuen. Handik aurrera, jazz musika hankaz gora irauli eta molde tradizionaleratik modernitatera eraman du, musika mota berriekin uztartuz eta nahastuz. Berrogei urtetako bere musikagintzan, esan daiteke lehen bi hamarkadetan jazzaren esparruan mugitu zela Miles, lehenik "cool" estiloa sortuz eta gero "modal jazz" izenekoa, "King of blue" diska zoragarrian. Baina 1969tik aurrera, Davisen indar sortzaileak jazzaren hesiak apurtu, gainezka egin eta musikaren itsaso zabalera isurtzen da: "In a silent way" diskaz ari gara. Sasoi horretan, rock-munduko izarrak bezain famatua bihurtzen da Miles, beronen kontzertuek jendetza izugarria biltzen dituztelarik.

Ondoren, isiltasuna. Osasun-arazoak eta kotxe-istripu bat direla medio, urte luzez desagertzen da Miles musikagintzatik. Baina iturria ez dago agortua. Eta 70eko hamarkadaren amaieran, geldialdian mamitutakoa kanporatzean, berriro indarrez betetako diskak egingo ditu Milesek, "You're under arrest" paregabea lekuko".


Aipatu beharra dago, puntako musikoen sorkuntzan ere maisu izan dela Davis. John Coltrane, Herbie Hancock, Josef Zawinul, John McLaughlin, Chick Corea edo Bamford Marsalis aipa ditzakegu adibide gisa. Milesek berak dioen bezala: "Neure diskak maite badituz, nirekin jotzen duten musikoen gainetik da, batez ere. Nik badakit nola lortu barrenean duten hoberena eman dezaten. Horregatik dago hain musika ona nire disketan".

Gasteizko azken Jazzaldian Miles Davisen emanaldia ikus ahal izan genuenok, ez dugu berehala ahaztuko gau hartako lilura. Aurrean genuen mitoa, bai, baina indarrean eta bizirik. Zalantza bakar bat utzi zigun argitu gabe: Zein iraultza berri ari ote zaigu prestazten isilpean Miles maltzurra? Mikel Irizar

Diskagintza:

Ezin aipa Davisek 40 urteotan emandako diska guztien zerrenda. Hona aipagarrienak:

- King of blue
- Round about midnight
- Miles ahead
- Sketches of Spain
- Miles smiles
- In a silent way
- Bitches brew
- We want Miles
- You're under arrest
- Tutu



Hau
 zer den
 jakitea nahi
 ba duzu
 etor zaitez
 gurera



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

Obea

Ate automatikoen
 ezarpena
 Konponketak
 Berriztapenak
 Galdetu prezioak
**IGONGAILUEN
 MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea
 Tfnoa: 79 12 08

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8

Lehenagoko janak



Gaurkoan pentsatu dugu lehenago jendeak zein modutako janak egiten zituen kontatzea. Horretarako Muxibarko Esteban Etxabe eta Altamirako Frantziska Berezi-barrengana jo dugu.

Itxura denez gaur baino aukera gutxiago zeukaten eta sasoiari sasoi-koa jaten zuten.

Baserritarrek baserriko bertako jeneroa jaten zuten, kalean ahalik eta gutxien erositako: Gaztainak zeuden lekuan gaztaina asko, gaztaia

zegoen etxean gaztaia ugari. Kaletarrak, berriz, larriago ibiltzen ziren, dena erosi behar izaten zutelako eta gaur beste diru ez zegoelako.

Eguzkiarekin jaikitzen ziren eta armozua, aitarentzat sendo samarra izaten zen: tortilatxoren bat eta sagar erreren batzu. Besteentzat, berriz, esne-zopak.

Eguardian, negu eta uda, babak. Babak txerriarekin: urdai pusketa bat eta zegoenean txorizo mutur bat. Etxe batzuetan saldatxua prestatzen zuten eta salda horrekin zopa egiten, baben aurretik jateko.

Ogi ugari jaten zen, arto-ogia eta gari-ogia.

Eguzkiarekin bizi zirenez ez zen meriendarik egiten goiz afaltzen zelako. Afaldu, taloa edo morokila afaltzen zuten. Talo bitartean gaztai pusketaren bat edo, hartzen zuten.

Negu partean afaltzeko gaztaina ugari jaten zen, eta batez ere, egosita.

Intxaurrek eta urrak kanpokoentzat gordetzen ziren.

Igandero bazkaltzeko aza-gar-bantzuak okelarekin egosita jaten ziren. Okela hori tomatetan edo hutsik ondoren.

Gabonetan aza edo azalorea lehenengo, makailoa gero eta batzutan bixigua. Postrerako intxaurrek salta eta konpota.

Zerbait ospatu behar zenetan sasoiko jeneroa jaten zen: bildotsa, legatza, oilasko zaharren bat...

Edariak ere ez ziren gaur bezain ugariak eta gizakumeek ardoa eta pattarra edaten zuten, bestela ura eta sagardoa. Kafea inork edatekotan, etxeko nagusiek edaten zuten.

Morokil Taldea



ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta
Jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate, 79 98 94

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

Bidaliezazkiguzuzure kolaborazioak

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Gorputzeko gantzak

Pertsona baten pisu osoa lau sailetan banatzen da funtsean: gantzena, muskuluena, hezurrena eta kondar-pisua. Guzti hau jakiteko larruazaleko tolesak, hezur eta muskulu-perimetroak neurtu behar dira eta ondorioa, hainbat formula matematikoren bitartez, lortzen da.

Emaitza hauek jakitea oso garrantzitsua gerta daiteke, batzuetan pisu normala izanda ere, gantzen kopuru handia agertzen bait da, edo alderantziz, nahiz eta pisu handia izan, gantzen neurria normala dela agertzen da; azken kasu honetan muskuluak garatuta daudela esan nahi du.

Beraz, pisu handia izateak ez du derrigorrez gorputzean gantz gehiegi dagoela esan nahi.

Gantz gehiegi izanez gero, botikak eta kirurgia erabili gabe, dieta eta ariketa fisikoen bitartez bakarrik lortuko da gutxitzea. Gantzen gehiegikeria gaitz arteriosklerosoaren arriskuekin loturik dago. Ez dago datu askorik honi buruz, baina Arrasaten jadanik mila pertsona ikertuak izan dira eta neurketa hauek egin zaizkie.

Oraingoz gizon helduen datuak dituzue hemen, denera 490 dira eta ikusten duzuenetz hauetatik gantz gehiegi dutenak asko dira.

Gantzaren portzentai ertaina %19,04 +/- 4,35 da eta % 20a baino gehiago dutenak 196 dira.


Talde hau 42 urtekoa da eta adin honetan gantza duten 66 pertsona daude 490-ko talde honetan eta hauen portzentaia 17,7 +/- 4,01-koa da, ezberdintasun nabarmena ariketarik egiten ez dutenekin konparatuz.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

ADIN-TALDEAK

		19-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-59	60+
GIZONA	<i>Gutxienezkoa</i>	%6	6	6	6	6	6	6	6
	<i>Gehienezkoa</i>	%14,4	16,5	18,0	19,4	20,5	21,5	22,7	23,5
EMAKUMEA	<i>Gutxienezkoa</i>	%9	9	9	9	9	9	9	9
	<i>Gehienezkoa</i>	%21,9	22,4	22,7	23,7	25,4	27,2	30,0	30,8

KOIPEAREN PISUA



GIZON HELDUEN ARTEKO BANAKETA



Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

IKASI Akademiak

HONAKO HAUEK EMATEN DITU:

* NORBANAKO ETA TREBAKUNTZAKO IKASKETAK:

O. H. O. 1.º Aldia B.U.P. Matematikak, Fisika
2.º Aldia C.O.U. Kimika, Biologia (Zientziak eta Letrak)
Latin, Griego, etab.

L.H.- Sail guztiak
R.E.M.

EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

* UNIBERTSITARIOENTZAT - IKASI AKADEMIA

- TEKNIKA INJINERUTZA
- ENPRESA-ZIENTZIAK

IKASIn ikasketak gainditzen lagunduko dizugu!

ITURRIOTZ, 25 2. - Tfnoa: 76 40 33 (Behin behinean) eta 79 73 52

ARRASATEN gaude.

GABINETE MEDIKOA

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak**

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08



**EUSKALTZALEA BAZARA EDO
EUSKARA IKASTEN BAZABILTZA
EDO... ETA ARRASATE
EUSKALDUNTZEKO ZURE
LAGUNTZATXOA ESKAINTZEKO
PREST BAZAUDE, AEDko ATEAK
ZABALIK DITUZU**

**EGIN ZAITEZ A. E. D.
ELKARTEAREN BAZKIDE!**

Interesatzen bazaizu bete ezazu azpian duzun txartela eta etorri lasaitasun osoz edozein arratsaldetan gure lokalera, bertan, informazio zehatzagoa eman ahal izango dizugu eta.



BAZKIDE TXARTELA

(1. ABIZENA)

(2. ABIZENA)

(IZENA)

(ZUZENBIDEA)

(TELEFONOA)

(JAIOTZE DATA)

(LANTEGIA/IKASTETXEA)

(LAN./IKAST. TFNOA.)

(AURREZKI KUTXA *Munizipala, G. K. edo LKA*)

(KIK ZENBAKIA)

Sinadura

ETXEBIZITZAK

- Garaje indibiduala salgai Udala enparantzan. Tfnoa: 79 90 55.
- 37m2ko merkataritzako lokala salgai. Kale alde,13. Tfnoa: 79 83 50.
- Pisua salgai Oben Errekan. Tfnoa: 79 67 59
- Merkataritzako lokala esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa: 79 49 88 Prezioa elkarren artean jartzeko.
- Culleran (Balentzia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94
- Pisua salgai. Aldai gain Tfnoa: 79 71 93
- Pisua salgai Salamankan. Tfnoa: 79 70 72.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Pisua salgai altzari eta guzti, Makatzenan (5-4º A) Tfnoa. 799357
- Bikote batek, lehen baitlehen pisu bat errentan hartu nahi du. Tfnoa.:79 70 15. Iñaki.
- Etxebizitza salgai Algortan. 94-4698269.
- Lehen bait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa 79 09 00. Lorea.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe--Auzoan. Interesatuek dei 79 47 85 telefonora.

LANA

- Neska bat behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuek dei 79 35 44 telefonora.
- Emakume gazte batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 58 61.
- Neska bat behar dugu haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, goizez 10,30etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 8,30etara. Interesatuek dei 79 64 50 telefonora.
- Irakasleak behar dira BBBeta UBirako (Matematika eta Fisika) Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika) Interesatuek dei 76 40 33 telefonora
- Andre euskaldunak arratsaldez etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa.79 40 53 (Maitc)
- Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahalbalitz euskalduna. Berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuek dei 79 66 38 telefonora. 6 terdietatik 7etara.
- Irakasleak behar dira. BBB eta UBirako (Matematika eta Fisika) eta Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika).Interesatuak dei 79 40 33 telefonora.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta umeak ikastolara eramateko. Egun erdi. Dei 79 88 83.

- Erreminta-zorroztaila behar du Eibar-ko enpresa batek. Interesatuek dei 713227-713789 telefonoetara.
- Makina-erremintak saltzeko pertsona behar du Eibarko enpresa batek. Interesatuek Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.
- Eibarko enpresa batek idazkari bat behar du. Interesatuek Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Ia estreinatua gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Umeentzako kotxea salgai. Tfnoa 79 71 13
- MARAFI markako kafegailua saldu nahi nuke, berri samarra, baxera eta guzti,. Oso merke. Tfnoa 79 97 31 .
- 10 abiadura eta 54 neurrizko "Corbeta" txirringa salgai dago. Tfnoa 79 58 29.
- Bigarren eskuko sukaldeko altzariak saltzen dira., egoera oncan. Interesatuek dei telefonora 79 93 14
- R5-TS autoa (SS-I matrikula) salgai. Tfnoa: 79 7135.



ARRASATEN HILDAKOAK

Primitivo Sanchez Garcia 84
Martxoaren 10ean

Maria Josefa Chups Merichal 49
Martxoaren 11an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: _____

Zehar kale estalia 1, 1b 20.500 ARRASATE Tfnoa 797164

Famauen ahotik



"...eta geruau autobuse, Bitorixera, bañe zaldi-kotziek luzaro jarraitu aaien..."

**Karrikirrixeneko,
Anizeto eta Dolores (I) :**

**Anizeto Aranzabal
(1896-4-17) eta Dolores
Resusta (1896-3-18).
Zorionak eta urte askotarako**

**"Gure ume denboran, ez
euen automobilik,
zaldi-kotxie"**

Eskolie

—Dolores eta Anizeto: Gure ume denboran Mundrauen eskola asko auen: nazionalak, mojak pe baeu-kien San Frantziskon, gero Frantzietik espulsauteko moja batzuk be egon zien eta hareik pe bai Garibaixen, gu Bitorixenien ibili gitzen. Orduen Biterik Gipuzkuen jarri zittuen 22 eskola, edifizuek. Mundrauen edifizue eta maixuek pe berak pagetan zittuen. Altsasun auzela onak eta handik ekarri zittuen andra-gizonak. Zortzi urteaz hasi gitzen, neskak eta mutikuek aparte. Xei seziño egoten zien, gutxien ekixenetatik geixen ekixenetara.

—Ani.: Orduen, zapatue eskola egune izeten zan eta eguen atsaldie jai, maixuaz pasiuen jueteko.

—Dolo.: *Bai, bañe hori mutillek bakarrik eitten auen, neskak etxien, galtza-konponketan.*

Ani.: *Bai, eta urtien behin urrin jueten gitzen, eskursiñuen. Elorri-xora oiñez juen iguel eta handik Bilbora, trenien, baztarrak ikusiaz.*

Dolores dendara

—Dolo.: Guk kontornuko den-daik onena gauken, ferreteixa kontue batez be, bañe beste gauza asko be bai, hasi garbantzu, kafe eta alpisteraifokuek.

Orduen jan-dendatan eta, apun-tera erosten zien gauzak eta gero kintzenan pagau. Guk ez, guk erosittekuen. Larogetalau urte arte ibili naz dendan, izterra apurtu arte.

Anizeto Fabrikara

—Ani.: 15 urteaz hasi nitzen Zerrajeran lanien, 1911ien. Urte batzuk ein, urten eta soziedadie formau gauen, kutxererixie. Garibai kalien lehenengo eta estaziño onduen geruau.

1920 inguruen 200 langille pasau eukitte gaz. Klase guztietako kuberterixie eitten gauen.

Saltzeko, inguruko denda eta Zerrajerako biajantiekintan kontetan gauen, Madrillera, Andaluziara... Geruau izan gittuen geure representantiek pe.

Juan-etorrixek

—Dolores eta Anizeto: Orduen geixenbat oiñez ibiltten gitzen. Bizikletak pe gutxi, peliau ein biher izeten zan erosi ahal izateko, txotxo!

Oñetitik Gatzagaiñera, Mundrauetik Bergarara eta halako rekorrido luzetxuek eitteko zaldikotziek izeten zien, 7-8 lagunendako kabiriaz.

1913en, Zerrajerie izengo zan 1.go automobille jarri auena. Gero 1918xen trenan .

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Kazarixenak

Gizurrak kontatzen ezdago kazarixei urrik emoterik. Zeiñek ezta-ki Eibartar hari pasautakua: Tabernan kontau ebanez derrepentian sasi artetik urten jakon hamalau librako erbixa eta tiro bakarreko eskupetia izan arren, danba! danba! jaurti ein zotsan. Edo beste harek, kartutxo bakarra euki eta arbola ipurdixan erbixa eta gaiñian usua ikusi zittuan, zela "tiro korridua"kin bixak bota zittuan.

Eibarren esaten dabenez, zerbait dakarrenian, Untzagako plaza erdi erditik pasatzen die, jenteik gehixen dabilen orduan, sortia gerititik zintzilik, harro harro, txakur-rrak pe buztanai eragifnez.

Hutsik datozenian berriz, gehixenetan moduan, Aiuntamentu ostetik, trenbidetik zihar, apal apal, txakurra be buztana hanka artian gordeta, lotsian lotsaz. Baiña hala be hurrengo egunian kontauko dabe txori sortia eta abarra.

■ ■ ■ ■ ■

Basarri inguru baten bazebillen Artobero txakur arrastuai segika eta halako batian, danba!, danba!, zerbaiti tiratu zotsan. Basarriko ataxan etxeko gizona zeuan eta tiro hotsa entzun da lasterrera erbi eder bat pasau jakon aurretik, osasun onakin, ihesi, Artoberon tiruai hanka eindra.

Laster zan artobero, egarrixak, ur eske.

— Hi izan haiz hor tiroka? -pre-guntau zotsan baserritarrak.

— Bai eta ixixa bota juat erbixa. Bigarren tiruan belarri bat kendu jotsat.

— Hola bada ondo ein dotsak. Etxaukan hiru belarrikin zertan ibilli.

Juan Martin Elexpuru

FERRERIAS
Fotokopiak
Enkuadernaziok
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO ASEGURUAK
Kontzeziño kalea 4 - behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE .

JESUS ELKORO
BIDEO - KLUBA
Tfnoa: 791886 ARRASATE



Zuhaitzez beteta ageri
zaigun Santa Barbara
mendiskaren
babespian Arrasate

historikoa ikus daiteke.

Erdi Aroko

hirigunean San Juan Bautista

parrokia nabarmentzen da,

etxez eta kalez zeharo

inguraturik.

Harresien kanpokaldetik,

berriz,

San Frantzisko komentua

kokatzen da Ugaran

errekaren ertzean;
errekan gora joanez gero,
ezkerretara Olarte kalea
soma daiteke eta Zarugalde
eskumaldean; erdialdetik
ezkerretara, Portaloitik hurrean,
Madalenako Errebal z zaharra eta
Biteri eskolak;
eta, azkenik,
ezkerrean "Cerrajera"k
Zaldibar inguruan
jasotako lantegi handiak.
Argazkia I. Ojangurennek
atera zuen mende honen
lehen hamarkadetan ■

Lore lurrindegia

Goi-kosmetika eta lurringintzan espezializatua

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99

OSORIK

pub

Ignazio Zuloaga

apainketak

Zubizarreta

GALERIA 44


erakusketak

o p a r i a k

PUB HAIZEA



Erdiko kale 79 19 37



Ferrerias 79 87 62

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28-B Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE

EPELDE

Argazki
denda

Iturriotz 24

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71-64



SAN VIATOR IKASTOLA

Ikastolaren eskaintza

*OHO (EGB) | 6 urtetik 18 urte bitartean Ikastolan egoteko aukera
*IEE (REM)

*OHO*n D eredia eta B eredia indartua.

*Batxilergo orokorra: 2 kurtso (euskaraz eta erderaz)

*Goi Batxilergoa: Giza Zientziak

Natur Zientziak (euskaraz eta erderaz)

OHOko matrikula epea: Martxoaren 7tik 17ra bitartean.

Bazkideen Batzarre Arrunta

Datorren Martxoak 21ean, asteartea,
arratsaldeko 6,30etan 1. deialdian eta
7,00etan 2. deialdian.

Informazioa eta argibideak: 79 04 11 telefonoan.

Lakonismoa da aste honetako kolaborazioari hoberen dagokion hitza. Eguneroko bizitzak ez bait ditu ikatza bezalako labezomorroak bakarrik isurtzen; imajinazioaren orratzak zorrotzuz, lokatzetan ere aurki daitezke honelako harri bitxiak.

Etxekoei ez zaie gustatzen imajinatzen ibil nadin

Total, etxera joan eta burukomina dutela esango didate, geldi egoteko, mesedez. Beti mesedez eskatzen didate. Horregatik ez dut presarik hartzen auzoko aldapa igotzerakoan. Sarritan, ni gorantz natorrela, besapean bokadiloa dakarren gizon beltzarana beherantz dihoa. Gauez egingo du lan, ziur aski. Gaueko txandakoei begiak iluntasunera ohitzen omen zaizkie. Ez dugu elkar agurtzen, berak noizbehinka begiraten badit ere. Inoiz ez. Gaur bezalako egun tentelean, besapeko bokadiloa imajinatzeari ekin diot: periodiko-paperean bildua eta letrak ogi koipetsuan itsatsita; ezpainetan ere bai. Baina etxekoei ez zaie gustatzen imajinatzen ibil nadin. Haserre ixila egingo lidakete, edo buruko mina dutela esan.

Gehienetan geldiunetxo bat egiten dut bideodendako eskaparatean, posterrei begira eta. Ostiraletan jende ugari pilatzen da barruan. Euria ari ez duenean, kalean hotzegi ez badago, bideoren bat jartzen dute kanpotik ikusteko moduan; lagunen eritziz, gehiago saltzeko asmotan, baina nik osorik ikusten dut. Gainera, soberan dakite nik ez diedala ezer erosiko. Astean birritan aldatzen dute eskaparatea. Tabernako telebistaren aurrean ere oso gustora egoten naiz, patxadan. Beti dago piztuta eta ez da egundo entzuten. Gizonen iskanbila. Ardoa edaten dute, azeitunarik eskatu gabe.

Usain berezia du tabernak. Hasieran nazkagarri

samarra zitzaidan lurreko zerrautsa. Orain berdin zait. Primeran pasatzen dut zarata aditzen. Ez da inortxo ere burukominaz kexu. Bideodendatik tabernarainoko bidean ez naiz aldapaz ohartu ere egiten. Kanean gurutzatzen ditudanak bilutsik imajinatzearekin ere dibertitzen naiz. Zahar-zaharrak ikusten ditut batipat, larru gorritan, tabnaren usainaz, eta gehienetan barrezka, barre betean asmatu. Pentsatzen dudan guzti hau balekete, barre gutxi. Burukoak eta bestelako minak. Ez zaie gustatzen imajinatzen ibil nadin. Etxean isiltasunean geundela, tuberietako hotsak entzunez kotxe txikerrak imajinatzen nituen gora eta behera, baina horrek ere ez zien graziarik egiten.

Lastima tabernako mahaien gainean dautzan ogi-mamiak. Ez dakit nork uzten dituen. Ni bertan nagoen bitartean, jendearen zeregina jatea da. Ogi-papur horiek ez balira, zer edo zer saia zitekeen mahai gainean.

Gutziz ilundu aurretik komeni da etxeratzea, besteekin batera telebista behatzera, ea atentaturik suertatu den. Nire ustez, etxekoek ere, lehen, agian aspaldi ez dela, neuk beste denbora ematen zuten imajinatzen. Beharbada, maizegi igo dute gure kale erripatsua. Atarian ez diote buzoitari jaramonik egiten. Nik beti ukitzen dut, eta giltzak ditudan arren, nahiago dut aldekoen bati tinbrea jotzea, ilundu aurretik. Aldeko horren etxean bizi naizela ere imajina dezaket. Ataritik kale osoa menperatzen da. Goizean aldatz-behera izango dela imajinatu.

Txema Abarrategi



UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

■ **Kanpo-berriemak:** Nik dakidala, Euskadi Irratiak berriemak bakarra du Euskal Herritik kanpo, Madrilgoa hain zuzen. Paris, London, Erroma, New York, Mosku, Tokyo, Jerusalem eta munduan etengabeko albiste-iturri den beste zenbait hiriburuk ez du korrespondentsalik. Arrazoia diru-faltan egongo da seguruenik. Noizbehinka, hala ere, nahiko trebezia azaldu dute gabezia hori, era itxurosoan betetzeko. Venezuelan gertatu diren azken liskarrak kasu. Bertan bizi diren euskaldunak erabili dituzte, zuzenean eta euskaraz, lehen lerroetako lekukotasunaz, hango berri latzak zabaltzeko. Egun batean Xabier Leizaola entzun nuen goizeko albistegian. Beste batean Joseba Lazkano, Imanol Lazkano bertsolariaren anaia, izan zen berriemakile zorrotza "Goizean behin" irratsaioan.

Horrekin zera frogatzen da, munduko edozein bazterretan dagoen edozein euskaldun izan daitekeela berriemakile, baldin eta telefona eskura badauka behintzat. Ez da gutxi, kanpo-berriemakile profesionalen beharra ez duela konpontzen argi badago ere.

■ **Panpi Ladutxe:** Pilotari aparta izateaz gainera, abesten ere bada kiela -Iparraldeko kantorien estiloan- erakutsi zigun Azkaingo aurrelariak ostiraleko "Funtzioa" telemankizunean. Zer moduz gure Urrak proba egingo baldin?

■ **Aste politikoa aztertzen:** Algeriako elkarrizketak direla eta, makina bat saltsa ari da sortzen inguruetan: manifestaldia hemen, prentsaurrekoa han, ziriak bestean, gezi pozoinduak bueltan... Euskadi Irratiaren astelehenetako irratsaio honetan ere, gauzak garrantzitu egin ziren autodeterminazioa zela eta ez zela. Gutxitan bezala, berba gogorrek erabili zituzten Pako Garmendia eta Jose Felix Azurmendik elkarren artean. Odile gaixoak moderatzilearena egin behar izan zuen, bai, moderazioa eta lasaitasuna eskatuz.

■ **Ahotsa:** Frank Sinatrari ematen dioten ezizen hori ez litzaioke batere txarto joango Euskadi Irratiko arratsaldeetako albistegietan berea hain modu goxo, bero eta adiskidetsuan jartzen duen Mondragoeko semeari, Juanjo San Migeli, hain zuzen. Entzun eta frogatu egin. Noren Aurpegia ipiniko zenioke ahots horri? Robert Redford, Paul Newman, Patxi Biskert, Alain Delon, Christopher Lambert edo norena?

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Hemen eta munduan,** ostiralean, 15,40etan (errepikapena). Estepan Aldamizek zuzenduta, eta Estepanek eta Aintzane Bolinagak aurkeztuta, aste honetan hiru gai interesgarri: Venezuelako egoera kezkarria; Martxoaren 18an Bilbon Pakearen aldeko manifestazioa, Ardanzarekin eginitako elkarrizketa bame; eta Brasilgo haur-salmentari buruzko erreportaia.

■ **Katu kale,** larunbatean, 17,00etan (errepikapena). "Kool and the Gang" taldearen kontzertua. Little Stevenekin elkarrizketa, Maddonnaren azken bideo polemikoari buruzko erreportaia. Parisen berriz bildu den "Stray Cats" taldearen kontzertua eta Lennonen arreba liburuari buruzko erreportaia ikusteko aukera izango duzue. Saioa Robert Grayan bideo kliparekin amaituko da.

■ **Heriotzaren ehiza** ("Dead Hunt", 1981), asteazkenean, 21,00etan. Zuzendaria: Peter Hunt. Antzezleak: Charles Bronson, Lee Marvin, Andrew Stevens. Animaliak eskuratzen dituen gizonak Kanadako lurralde urrun batetan akanpatzen du. Egun batzutan, Kanadako polizia historian zehar egin duen gizaki-ehiza handiaren helburu bihurtzen da.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

SORGINA IRRATIA

(105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Ostirala

7-9 KK Profe puag
7-9 Piramyd
10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua
11,30-12,30 Beltza blues klub

Larunbata

8-9 Onda katxondoa
9-11 Dana ondo dabil
11-1 Banpiroak

Igandea

10-11 Puuagg!!! (Musika eta kontra-informazioa)

Asteartea

7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat
8-10 Pufa kalufa
10-11 Bai zera!
11-12 Irrintzi

Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria
7-8 Exterminioa helburu
8-9 Mara-mara (Emakumeen Asanblada)
9-10 Itxungitako dragoie (AED)
10-11 Amen Jesus!
11-12 Gau erdiko klasikoak

K	A	O	N	R	D	N	A	I	L	A	E			
E	L	D	E	Z	E	E	A	A	N	A	Z			
R	Z	E	E	R	Z	A	A	K	K	B	A			
A	I	D	K	I	A	A	F	L	U	S	N			
A	K	L	E	A	T	K	A							

Zutabe nahasiak

Beheko zutabeak goiko koadroan behar bezala ipiniz, Bertolt Brecht-en bertso ezagun batzu agertuko zaizkizu

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Egumeroko bizimodua apurtzarekin ez duzu gauza handirik lortuko. Aldaketa hori egin aurretik bere ondorioez ongi pentsatu behar-ko zenuke.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Nahiz eta ez nabaritu lan handia egin duzu. Aste Santuko oporretan lasaituko zara, garai ona duzu buruan daukazu bidaitxo hori egiteko. Bestalde kontuz bizkarrarekin, masaia bat hartu beharko zenuke.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Azkenengo momentuan plan hauek aldatu beharko dituzu. Mundua ez da hor amaitzen, ez gehiegi kezkatu. Baina ez ahaztu ikasi duzuna.



CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Azken bolada honetan azkarregi aldatzen duzu eritziz, horregatik ingurukoek txundituta daukazu. Hobe duzu ixilik egotea, txorakeriak esan baino lehen.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Gastu gehiegi izan dituzu aste honetan, baina inbertsioak ezin hobeak izan dira. Dena den, gastatzeko joera kontrolatu beharrean aurkituko zara, behintzat Apirilera arte.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ez bazaitu konbenzitzen ez duzu proposamen hori onartu beharrik. Aspaldi honetan ezetza ematea ahaztuta bazenuen ere, ez zaitetz kortatu. Nahi duzuna oso garbi utzi eta ez egon besteei begira.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ondo etorriko zaizu sartuta zauden zulotik ateratzea. Hortik kanpo jende eta gauza asko daude, humore txarra desagertzeaz aparte, osasuna hobetzen joango da.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Neguan lo zenituen sentimenduak bapatean piztu dira. Ez mugarik jarri eta utzi zure buruari Udaberriaz gozatzen. Natura, gai honetan, zu baino jakintsuagoa da.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Dibertitzea komeni zaizu. Orain duzuna ez bazaizu gustatzen, utzi alde batera eta atsegin zaizuna aurkitu edo, bestela, asmatu. Ahalik eta azkarren mugitzen bazara, hobeto zuretzat.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Datorren astean astro guztiak zure alde dituzu. Bai jokuan bai amorioan izugarrizko zortea izango duzu. Aprobetxa ezazu egoera, agian luzaroan ez da itzuliko eta.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Aldaketa ugari gertatuko da zure inguruan. Aprobetxatu momentua, aukera ezin hobeia izango duzu eta. Zure esku dago aldaketa hauek atsegin ateratzea.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Oso gaizki portatu zara zure lagun minarekin, inor ez da zure akatsen erruduna. Ez zaitetz hain harroa izan. Noizean behin amore ematea ez dago batere gaizki.

ez dakizula

Zenbat eta zeintzu lanpostu finko dituen aurten Udalak.

Udalak, hilaren 15ean egindako bilkuran, Aurrekontuarekin batera 1989 urteko Enplegu-Publikoaren Eskaintza onartu zuen.

Hartutako erabakiaren arabera, aurten 7 lanpostu berri beteko dira modu finkoan. Hauek dira postuok:

- Administrari Orokorreko Teknikari 1 (Zuzenbidean Lizentziatua)
- Obra Publikoetako Erdi- Mailako Teknikari 1
- Udaltzain 1
- Euskaltegiko Irakasle 1
- Biltegizain 1
- Atxabalpeko zaintzaile 1
- Klinika-auxiliar 1

Guzti horietatik baliteke lehen a barne-promozioz betetzea eta beste guztiak deialdi zabalez.

Beste aldetik, Diputazioaren eta INEMen Enplegua Sustatzeko Programak erabiliz batez ere, 50 bat kontratu inguru egingo dira, 6 hila-betekoak gehienak.

Zenbat langile finko dituen Udalak.

Aurrekontuarekin batera onartu den pertsonal-plantilaren arabera, Udalak, AUKEA eta Iturbide Egoitza barne, 114 langile finko ditu, ondoko zerbitzu edo sail hauetan banaturik:

- Idazkaritza Sailean: 10
- Hazienda Sailean : 8
- Zerbitzu eta Mantenu Sailean: 26
- Hirigintza Sailean: 10
- Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Euskara Sailean: 6
- Euskaltegian: 7
- Sanitate eta Ongizate Sailean: 4
- Udaltzaingoan: 12
- AUKEAn: 14
- Iturbide Egoitzan: 17

Zaintzu eta zenbat ekintzatan parte hartu duen Arrasateko Ertzaintzak 1988 urtean.

1988 URTEAN.

-Trafiku-istripuei dagokionez, 481 czagutu dituzte, horietatik 330

istripua izandakoen elkar-adostasunez konpondu direlarik eta beste 151 kasutan aldiz zegokion atestatua instruitu behar izan delarik.


Istripu gehien izandako hilabetea Urtarrila izan zen 58rekin eta gutxienekoa Abuztuko 18rekin. Egunik istripusuenak, berriz, ostiral eta larunbatak gertatu dira.

Istripu guzti horietan 3 hildako gertatu ziren, 16 zauritu larri eta 155 zauritu arin.

- Suteei dagokionez, 72 alditan hartu zuten parte beroriek itxungitzen edo zerbaitetan laguntzen. Horietatik 9 sute etxebizitzetan gertatu ziren, 10 enpresetan eta 53 leku libretan.

- Ertzainak 1988ko urtean Alkoholemiazko 1063 frogak egin zituen, zinetarik 75ek eman zuten positibo, 42 kasutan atestatuak egin behar izan zirelarik.

- Arrasateko Ertzaindegian azkenik, 1988 urtean 992 salaketa aurkeztu ziren. 73 pertsonen kontra izandako erasoengatik, 521 jabe goaren kontra izandako erasoengatik eta 398 agiriaren galtzeagatik.



ZURE AUTO ZAHARRAK GEHIAGO BALIO DU RENAULT 21* EROSTERAKOAN.

Martxo eta Apirilean zehar, **RENAULT 21** erosterakoan, zure ibilgailu zaharren balarazio berezia egingo dugu. 150.000 pta. taraino aurrera ditzakezu, **RENAULT 21 TXE, RENAULT 21 TI** gamako goi-bertsioak erosterakoan.

Ez baduzu automobil zaharrik, edo ez baduzu berria ordaintzeko erabili nahi, ez arduratu! Baldintza interesgarriak ditugu zuretzat.

* Eskaintza honek ez du balio, aldi berean aire girotua eta ABS dituzten bertsioetarako.

ZATOZ IKUSTERA

TALLERES MECA, S. A. n Araba Etorbidea, z/g
Tfnoa: 79 59 99